

MENTXAKAREN AITORPENA: Piriniotan galduta

(...)

Ziegan zaude atzera. Aparteko arazorik gabe joan da gaurko galdeketa. Egun asko zain eman ondoren, amari telefonoz deitzeko baimena eskuratu duzu gaurkoan. Horrek gozatu zaitu aspaldiko partez. Zementuzko ohean etzanda, beroki baten azpian, leihatilari begira ari zara, burua besoen gainean jarrita. Itxuraren arabera, eguraldi txarra dabil kanpoan. Aire zitala sartzen da sarean barrena. Hotzak zaude. Pirinioak zeharkatzean gertatutakoarekin gogoratu zara, eta hotzikara egin zaizu.

* * *

Abian jarri aurretik, Kataluniako buruzagi nazionalista baten etxean eman genituen zenbait egun. Urte batzuk bazeuzkan gainean, eta escuche, escuche esaten zuen hizketan hasten zen bakoitzean. Azkenean, "Escuche" deitu behar izan genion. Amarekin batera bizi zen. Amona, xahartuta ordurako, gaixo zegoen, eta Errepublika garaiko oroitzapenak kontatzen zizkigun etengabe.

Azaroaren 13an, Ripoll eta Camprodon aldeko mugara bidean jarri ginen bazkalondoan. Bi automobil legal erabili genituen. Batean Fofo (liberatu legala) zihoan gidari, eta bestean Kataluniako taldeari esker lortutako militante bat. Mugatik kilometro batzuetara jaitsita, Prats de Mollora iristeko asmotan gindoazen, Letxepan, Ejekutiboko gure kidearekin harremanetan jartzeko. Automobilek, txoferrarekin bakarrik, modu legalean zeharkatu behar zuten muga, eta besteok, mendiz inguru bat eginez, errepidearen puntu jakin batean egingo genuen bat beraiekin beste aldean. Agirre, Xirri, Bikila, Belarri, Francis (Bartzelonako ordezkari izateko arduraduna) eta ni neu, bost lagun ginen guztira, eta alderdi haiek ondo ezagutzen omen zituen gidari bat generaman laguntzaile.

–Bide luzea al da? –galdetu nion irtendakoan.

–Ez, ez, bi ordu baino gutxiago –erantzun zidan gidari kataluniarrak.

Ni ez ezik, beste guztiak ere zapatekin eta ondo jantzita geunden; beraz, bestelako arropa eramatea komeni ote zen egin nion galde.

–Ez kezkatu, zauden bezala joan zaitezke.

Arratsaldeko laurak aldera jaitsi ginen automobiletik, eta mendira jo genuen errepidearen bazterrera ematen zuen zidor batetik

MENTXAKAREN AITORPENA: Piriniotan galduta

gora. Hasieran, tarte luze samar batean, nahiko ondo zegoen zorua, baina pixkanaka aldapan zegoen pinudi batean galdu genuen bidea.

Oinez eman genituen bi ordu luze, eta ez zen azkena ageri. Gero eta pikoagoa, amaigabea ematen zuen maldak. Aurrean, Bikila eta Agirre arin zihoazen, mugaren ertzean dabilenari eta Guardia Zibilarekin topo egin dezakeela dakienari egiten zaion ezinegona barruan; atzean, Belarri, Xirri, Francis eta neu. Gidari kataluniarra, guztien buru, nahiko urduri zebilen; izan ere, "ETako buruzagi" ginela esan omen zion norbaitek. Gerriko zorroan dantzan zebilkidan pistola, eta traba egiten zidan ibiltzeko. Gainera, erabat sendatu gabeko gaitza neukan giltzurrunetan, eta minez nindoan.

–Mekabendios! –esan nien Bikilari eta Agirreri biraoka–. Zergatik ez zarete mantsoago joaten?

Urtebete ia mugitu gabe, ajeak tartean, gero eta neke handiagoa sentitzen nuen. Etxean sartuta beti, behar baino pisu handiagoa gainean, baldartuta nengoen. Guardia Zibila azalduz gero, ez nuen nahiko indar aterako korrika alde egiteko; beraz, zuhaitz baten atzean babes hartuta, gainean neraman 9 luzeko Astraren hiru kargadoreak erabili beste erremediorik ez nuen izango, tiroka aurre egin ahal izateko.

Aurki beteko ziren hiru ordu abiatu ginenetik, eta ezinegona zerion Bikilari gero eta handiagoa. Mendian ibiltzen ohituta zegoen, nahiko ondo kontrolatzen zuen orientazioa. Abiatu aurretik aipatu ziguten goragunea bere ustez ez zetorren bat generaman norabidearekin.

–Seguru al zaude ondo goazela? –galdetu zion gidariari.

–Bai, bai... ez dago arazorik –erantzun zion zalantzan jarri gabe.

Lau bat ordu oinez eman eta gero, muino batera iritsi ginen. Mila metrotik gora zegoen, hotz izugarria geneukan, eta elurra ari zuen. Iluntzen hasia zegoen, eta urrutian, mendian behera, errepide bat antzeman genuen bihurkari, eta, ondoren, argi txiki batzuk distiraka.

–Horra hor; ailegatu gara –esan zuen gidariak pozik.

Aldapan behera gindoazela, errepidetik hurbil, aurrea hartu zigun Belarrik, bazterrak miatzeko asmotan. Frantziako dokumentazioa zeraman, eta bera zen egokiena lan hori egiteko. Handik pixka batera, korrika igo zen bueltan, eta arnasa hartu ezinik, horrela esan zigun:

MENTXAKAREN AITORPENA: Piriniotan galduta

–Ez goazak ondo. Hor behean 70 kilometros a Barcelona jartzen dik, eta Coca-Cola-ren iragarki bat ere ikusi diat espainolez idatzita.

Oraindik ere Bartzelonako probintzian geunden. Hogeik kilometro egin genituen oharkabeaz atzera, eta bazkalondoan atzean utzitako leku berean geunden. Ez zegoen inolako zalantzarik.

–Nahastu egin naiz, ez dakit non nagoen! –esan zuen gidariak lur jota erabat–. Galduta zaudete nire erruz. Akabatu egingo naute partiduan jakiten dutenean.

Zer egin aztertu genuen. Aukera egokiena Bartzelonara jaistea iruditu zitzaigun; bi lagun, autostopez, eta gainerakoak bertan gelditu. “Escuche” eta konpainiarekin jarri behar zuten lehenbailehen harremanetan, eta beste bi automobil eskuratu bezain laster, atzera gure bila itzuli.

Agirre eta Belarri jaitsi ziren errepidera. Bikila eta biok, badaezpada ere, atzean ezkutatuta gelditu ginen, tarte bat utzita. Automobil bat ikusi genuen nola zetorren. Asaldatuta, Guardia Zibilaren Land Rover bat zela konturatu ginen. Aurrera egin izan balu, hobe, baina gelditu egin zen.

–Egon hadi erne –esan zidan Bikilak–, zer edo zer gertatzen baduk, parte hartuko diagu-eta.

Arma eskuan hartuta, zain gelditu ginen. Agirre eta Belarri, pistola gerrian gordeta, guardia zibilekin ari ziren hizketan. Ez zen ezer gertatu, eta, handik pixka batera, Land Rover-ak normaltasun osoz egin zuen alde.

Hurbildutakoan, zer gertatu duk? galdetu genien.

–Dokumentazioa eskatu zigutek.

–Esan al dizute beste zerbait?

–Ea zer egiten genuen hemen... Taldean gaudela esan zieagu, camping egitera etorriak garel.

Ez genuen ondo ulertzen zergatik egin zuen Guardia Zibilak hain azkar alde, kontuan hartuta Agirre eta Belarri, kaleko arropa gainean eta inolako ekipajerik gabe, blai eginda zeudela, eta dokumentazioa, gainera, Gipuzkoan eta Bizkaian ateratakoa zeramatela.

–Balitekek susmo txarra atera izana.

MENTXAKAREN AITORPENA: Piriniotan galduta

Arriskuak aztertu genituen arretaz. Alde egitea komeni zitzaigun lehenbailehen, eta, pistola eskuan, ailegatzen zen lehenengo automobilari alto ematea erabaki genuen, baina ez zen beharrezkoa izan. Eskatu gabe gelditu zitzaigun bat berehala. Rally batean parte hartzeko ari zen entrenatzen, eta eraman egin gintuen. Xirri hotzak akabatzen zegoen, eta Belarri eta Agirrerekin joan zen.

Gainerakoak, Bikila, Francis, gidaria eta ni neu, gaua pasatzeko hasi ginen prestatzen. Errekasto bati jarraiki, tunel txiki bat aurkitu genuen errepidearen azpian, eta bertan egokitu ginen. Hura zen atergabe ari zuen elur bustiari aurre egiteko babesleku bakarra. Gau izugarria izan zen. Orduak eman genituen egunsentiaren zain; ur-korrontea zentimetro gutxitara, hotzak ikaran, blai eginda, mugitzeko nahiko tokirik gabe... Lo egin zuen bakarra, harrigarria, kataluniarra izan zen. Zer- nolako zurrungak!

Hurrengo egunean, eguerdi aldera, Agirre, Belarri eta Xirri iritsi ziren bi automobiletan. Oraingoan bi kataluniar zetozen txofer. Bietako bat, "Escuche", ezagutzen genuen. Gidariak egindako hutsa zela-eta, kezkatuta zeuden oso. Eztabaida bizian jardun zuten luzaro. Inork baino hobeto ezagutzen omen zuen ingurua, baina behar baino 20 kilometro beherago eraman gintuen bidean gora.

Automobiletan sartuta, muga aldera jo genuen berriro, beste saio bat egiteko prest. Errepidean kontrol batekin topo eginez gero, nahi genuena egin genezakeen, baina escuchen, que yo no paro esan zigun, hala ere, burkide zaharrak.

Eskarmentu handiko gizona zen, gerran ibilia, eta 40ko hamarkadako gerrillariak ere lagun izan omen zuten sarritan.

Bezperan baino dezente aurrerago abiatu ginen mendian gora.

–Oraingoan, bai, orain badakit zein den bidea –esan zuen gidariak.

Ordubete oinez eman ondoren, ondo kostata, gailurrera ailegatu ginen. Elurra ari zuen, zenbait zentimetro bazeuden lurrean. Basoa zeharkatu, eta, mugaren beste aldean, ez erabat baina galdu egin ginen berriro. Gidariak ez zuen herrira zeraman bidea topatzen. Bila genbiltzala, ehiztariak erabiltzen zituzten aterpe batzuk aurkitu genituen. Bat izan ezik, beste guztiak itxita zeuden. Oso baldintza txarretan zegoen, baina jauregia iruditu zitzaigun. Sua piztu, arropa lehortzen jarri, eta loak hartu gintuen leher eginda. Handik ordubetera esnatu ginen. Erre-usain izugarria zegoen. Agirreren zapatak erdi kiskalita zeuden. Ia oinutsik abiatu behar izan zuen Agirrek, baina, zorionez, herrirako bidea aurkituta, ilunabarrean ailegatu ginen. Gidariaren lagun batzuek Abbé de St Martineko

MENTXAKAREN AITORPENA: Piriniotan galduta

monasteriora eramán gintuzten. Letxepan zegoen gure zain. Ailegatzen ez ginela-eta, oso kezkatuta zegoen. Bertan eman genuen gaua, eta hurrengo goizean Bordelera iritsi ginen, hiru eguneko bidea egin ondoren.

Mentxakaren aitorpena, 240-246 or.